

XEDAPEN OROKORRAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

3611

EBAZPENA, 2024ko uztailaren 1ekoa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez prozedura berria ezartzen baita igogailuen aldizkako ikuskapenak egin eta mantentze-lanak egiteko, apirilaren 2ko 355/2024 Errege Dekretura egokitu dadin. Errege-dekretu horren bidez, ITC AEM 1 «Igogailuak» jarraibide tekniko osagarria onartzen da, zeinak arautzen baitu igogailuak martxan jartzea, aldatzea, mantentzea eta ikuskatzea eta lehendik dagoen igogailu-parkearen segurtasuna handitzea.

I.– 2024ko apirilaren 13an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen apirilaren 2ko 355/2024 Errege Dekretua, ITC AEM 1 «Igogailuak» jarraibide tekniko osagarria onartzen duena, zeinak arautzen baitu igogailuak martxan jartzea, aldatzea, mantentzea eta ikuskatzea, bai eta lehendik dagoen igogailu-parkearen segurtasuna handitzea ere.

Jarraibide Tekniko Berria 2024ko uztailaren 1ean jarriko da indarrean, eta igogailuen segurtasun-baldintzak zehaztea du helburu. Igogailuak martxan jartzeko eta aldatzeko prozedura ezartzen du, bai eta mantentzeko eta ikuskatzeko baldintzak ere, pertsonak, konpainia-animaliak eta ondasunak babesteko tresna horien funtzionamenduaren, aldaketen eta mantentze-lanen ondorioz sor daitezkeen istripu-arriskuetatik.

II.– Hori dela eta, beharrezkoa da estatuko araudi berrira egokitzea gaur egungo 5/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa, igogailuak mantentzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan igogailuak aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzen duena, Arrazoi berberengatik, beharrezkoa da Igogailuen Aldizkako Ikuskapenen Eskuliburuaren seigarren edizioa estatuko araudi berrira egokitzea. Eskuliburu hori 2014ko otsailaren 20ko Aginduaren bidez onartu zen.

Gaur egun indarrean dauden arau autonomikoak aldatu eta estatuko oinarrizko araudira egokitzeko prozedurak izapidetzen ez diren bitartean, igogailuak ikuskatzeko jarduera duela gutxi onartutako estatuko oinarrizko araudira egokitzeko jarduketa-irizpideak ezarri behar dira ebazpen honen bidez.

Horretarako, igogailuen aldizkako ikuskapenak kudeatzeko aplikazioan behar diren aldaketak gehitu behar dira, eta aldaketa horiek ebazpen honen eranskinetan jasota daude.

Aurrekoa ikusita, jarduketa-irizpide hauek ezartzen ditut:

Lehenengoa.– Hasierako ikuskapenei dagokienez, igogailuak zerbitzuan jarri aurreko ikuskapenetan, UNE 192008:1 arauetan jasotako egiaztapen xehatuak egin beharko dira 203/2016 Errege Dekretuaren arabera merkatuan sartutako aparatuentzat, eta UNE 192008:2, berriz, makinei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko ekainaren 14ko 2023/1230 (EB) Erregelamenduaren arabera merkatuan sartutako aparatuentzat. Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/42/EE Zuzentaraua eta Kontseiluaren 73/361/EEE Zuzentaraua indargabetzen ditu.

Era berean, kontrol-erakundeak egindako ikuskapen horren ziurtagiria igogailuaren dokumentazioan sartuko da, zeina titularrak eduki behar baitu aparatua martxan jartzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu aurretik; dokumentazio horrek Administrazioaren eskura egon behar du.

Bigarrena.— Bestalde, zerbitzuan dauden igogailuen segurtasuna areagotzeko neurri egokiak ezartzeko beharra ezartzen da. Egoera hori aparatuko bakoitzaren aldizkako lehen ikuskapenean egiaztatuko da, bai aldizkako ikuskapenaren kasuan, bai instalazioan istripu bat dagoelako egindako ikuskapenaren kasuan.

Hori jasota geratuko da Kontrol Erakundeak egindako ikuskapen-aktan, dokumentu honen I. eranskinean adierazitako egiaztatze-kodeekin, eta apirilaren 2ko 355/2024 Errege Dekretuaren VII. eranskinean ezarritako epeen arabera (355/2024 Errege Dekretua, apirilaren 2koa, ITC AEM 1 «Igogailuak» jarraibide tekniko osagarria onartzen duena. Jarraibide horrek igogailuak martxan jartzea, aldatzea, mantentzea eta ikuskatzea arautzen du, bai eta dagoen igogailu-parkearen segurtasuna handitzea ere).

Hirugarrena.— Bereizgarriei dagokienez, dagokion aldizkako ikuskapena egin ondoren, aparatuan ikuskapenaren kalifikazioari dagokion ikuskapenaren adierazlea ezarriko da. Bereizgarri horiek dokumentu honen II. eranskinean adierazitako ezaugarriak izango dituzte, eta bertan adierazitakoaren arabera beteko dira.

Laugarrena.— Lehendik dagoen igogailuan ezin bada ezarri 355/2024 Errege Dekretuaren VII. eranskinean ezarritako segurtasuna areagotzeko neurriren bat bertan adierazitako irizpideekin, aparatuen titularrak edo, hala badagokio, igogailu horiek ezarriko dituen enpresa kontserbatzaileak, bere ordezkari, administrazioari eskatu beharko dio ezintasun hori aitortzea, eta, eskaerarekin batera, ezintasun hori egiaztatzen duen dokumentazio egokia aurkeztu beharko du, baita aparatuan ezar daitezkeen neurri hurbilenaren deskribapena ere.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Aldizkako ikuskapenak kudeatzeko aplikazioetan ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren egoerak sartzea, eranskin horretan adierazten diren kodeekin. Egoera horiek «E» akronimoarekin gehituko dira.

Kontrol-erakundeak adierazi beharko dituen neurriak ezartzeko epeak 355/2024 Errege Dekretuaren VII. eranskinean ezarritakoak izango dira.

Egiaztatu beharreko elementuaren egoera dela eta, adierazitako egiaztapenetako bat akats gisa hartuko balitz egin beharreko aldizkako egiaztapenetan, bi egoerak alderatuz ateratzen den zuzenketa-epe zorrotzena bete beharko da.

Bigarrena.— Aurreko paragrafoan adierazitako egoerak egiaztatze, ebazpen honen II. eranskinean zehazten diren egiaztapenak egingo dira.

Hirugarrena.— Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko otsailaren 20ko Aginduaren B eranskinaren eta aurreko atalean adierazitako egiaztapenen eta ebazpen honen lehenengo atalaren bidez sartutako kode berrien laburpena izango den dokumentu bat egiteko eta webgunean argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.— Ebazpen honen III. eranskinean adierazitako ikuskapen-bereizgarrien ereduak onartzea.

Bosgarrena.— Ebazpen hau sektoreko eragileei zabaltzeko agintzea, eta sailaren web-orrian eta EHAAn argitaratzea.

2024ko uztailaren 24a, asteazkena

Seigarrena.— Ebazpen honek 2024ko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak..

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 1a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.

I. ERANSKINA

3.61.1	E	E	E	E	E.A.				Kabinako gidari zurezkoak, zilindriko hutsak eta/edo errailetakoak	
4.18.1	E	E	E	E	E.A.				Kabinaren geldialdi- berdintze doitasuna edo nibelazioa ez da egokia	
4.40.1	E	E	E	E					Igogailuak ez du bi noranzko komunikaziorik	
4.58.1	E	E	E	E	E.A.				Igogailuak ez du gortina motako babe-gailurik	
4.85.1	E	E	E						Igogailuak ez du karga kontrolatzeko gailurik	
5.21.1	E	E	E	E					Kontrapisuaren gidariak ez dira behar bezalakoak	

Oharrak:

Igogailu mota	Hutsune mota	EB jatorrikoa (*)
(1): 1966ko Araudia baino lehenagoko aparatuei aplikatzekoa.	O: Oso akats larria.	J: Martxan jarri zutenetik ^{a)} .
(2): 1966ko Araudiak eragindako aparatuei aplikatzekoa.	L: Akats larria.	J/O: martxan jarri denetik edo matxuragatik.
(3): 1987ko ITC AEM-1 jarraibideko aparatuei aplikatzekoa	A: Akats arina E: Egiaztapena.	^{a)} adierazi jatorrizkoa denean. CE markadun igogailuetan.
(4): CE markadun aparatuei aplikatzekoa.		
(5): $v \leq 0,15$ m/s aparatuei aplikatzekoa		
E.A. Ez da aplikatzekoa		

II. ERANSKINA

Ebazpen honen I. eranskinean adierazitako egoerak hautemateko, honako egiaztapen hauek egingo dira, haiekin batera doazen kodeekin:

* Ondare historiko gisa katalogatuta ez dauden igogailuetan jausgailua jartzen duten gidarien izaera egiaztatuko da. Zurezkoak, zilindriko hutsak edo errailekoak diren egiaztatuko da (355/2024 ED, VII.5 eranskina) 3.61.1-C

* Kabinaren gelditze-doitasa ± 10 mm-tik gorakoa da edo nibelaziokoa ± 20 mm-tik gorakoa. (255/2024 ED, VII. eranskina) 4.18.1-C

* Aparatuak ez du norabide biko komunikaziorik kabinan 4.40.1-C

* Aparatuak ez dauka errezel-motako babes-gailurik 25 mm-tik 1600mm-ra kabinako zapaltze-gunetik... 4.58.1-C

* Aparatua ez da historikoa eta ez du kabinaren karga-kontrolik; edo gidariak ordeztu ez direnez, ez da karga % 50era murriztu 4.85.1-C

* Ondare historiko gisa katalogatuta ez dauden igogailuetan jausgailua jartzen duten gidarien izaera egiaztatuko da. Zurezkoak, zilindriko hutsak edo errailekoak badira (355/2024 ED, VII.5 eranskina) 5.21.1-C

III.ERANSKINA

IKUSKAPEN-BEREIZGARRIA

Ikuskapen-bereizgarriek ondorengo irudietan agertzen direnen ezaugarriak izango dituzte, eta ondorengo irudietan agertzen diren bezala beteko dira:

EUSKO JAURLARITZA				GOBIERNO VASCO	
IGOGAILUAK				ASCENSORES	
ALDIZKAKO AZTERKETA				INSPECCIÓN PERIÓDICA	
RAE Zk				Nº RAE	
Kontrol Erakundea				Organismo de control	
EMAITZA		ALDEKOA (AKATSIK GABE)			
Resultado		FAVORABLE (SIN DEFECTOS)			
Azterketaren data				Fecha de inspección	
Hurrengo azterketa				Próxima inspección	
2026		2027		2028	
2029		2030		2031	
I		II		III	
IV		V		VI	
VII		VIII		IX	
X		XI		XII	

1. irudia: Akatsik gabeko aldeko ikuskapena
Kolorea: Orlegia PANTONE 360

EUSKO JAURLARITZA				GOBIERNO VASCO	
IGOGAILUAK				ASCENSORES	
ALDIZKAKO AZTERKETA				INSPECCIÓN PERIÓDICA	
RAE Zk				Nº RAE	
Kontrol Erakundea				Organismo de control	
EMAITZA		ALDEKOA (AKATS ARINAK.)			
Resultado		FAVORABLE (DEFECTOS LEVES)			
		KONTRAKOA (AKATS LARRIAK)			
		DESFAVORABLE (DEFECTOS GRAVES)			
Azterketaren data				Fecha de inspección	
Hurrengo azterketa				Próxima inspección	
2026		2027		2028	
2029		2030		2031	
I		II		III	
IV		V		VI	
VII		VIII		IX	
X		XI		XII	

2. irudia: Aldeko ikuskapena, akastuna (akats arinak baditu, soilik)
edo Kontrakoa (gutxienez akats larri bat badu)
Kolorea: Horia PANTONE YELLOW

EUSKO JAURLARITZA				GOBIERNO VASCO	
IGOGAILUAK				ASCENSORES	
ALDIZKAKO AZTERKETA				INSPECCIÓN PERIODICA	
RAE Zk				Nº RAE	
Kontrol Erakundea				Organismo de control	
EMAITZA		ZERBITZUTIK KANPO			
Resultado		FUERA DE SERVICIO			
Azterketaren data				Fecha de inspección	

3. irudia: Geldiarazitako igogailua
Kolorea: Gorria PANTONE RED032

Ezaugarriak:

1.– Etiketaren tamaina:

1.1.– Akatsik gabe: Zabalera: 90.00 mm. Altuera: 55.00 mm.

1.2.– Akats arinak edo larriak: zabalera: 90.00 mm. Altuera: 55.00 mm.

1.3.– Akats oso larriak: zabalera: 90.00 mm. Altuera: 40.00 mm.

2.– Koloreak.

2.1.– Akatsik gabe: berdea-. Kolorearen erreferentzia: PANTONE 360

2.2.– Akats arinak edo larriak: horia. Kolorearen erreferentzia: PANTONE YELLOW

2.3.– Akats oso larriak: gorria. Kolorearen erreferentzia: PANTONE RED 032

3.– Ikuskapen-bereizgarria auto-itsasgarria izango da, ezin izango da berrerabili eta garbiketa-produktuekiko erresistentea izango da.

4.– Jarri aurretik, errotuladore ezabaezinarekin identifikatu behar dira RAE zenbakia eta erakunde jardulearen kodea (EJ-XX-X), ikuskapenaren data, eta dagokion laukian zulatu hurrengo ikuskapenerako urtea eta hilabetea (berezigarriaren ondoan).

Ikuskapenean akatsak badaude, adierazi larritasun handieneko akatsei dagokien laukia.

5.– Bereizgarria kabinan ikusteko moduan jarriko da (ahal dela botoien gainean), eta beheko solairuko sarrerako atean, gutxienez 1,80 m-ko a